

**2003KO APIRILAREN 3AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO  
BATZARRALDIKO AKTA.**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hirua.

**HILABETEA:** Apirila.

**URTEA:** Bi mila eta hirua

**HASIERAKO ORDUA:** Hemeretziak.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**LEHENDAKARIA:** Jon Jauregi Bereziartua jauna

**BILDUA:** Patxi Plazaola Muguruza  
Ana Isabel Asla Egialde  
Jose Antonio Guirado Tristan  
Pello Garaialde Goikoetxea  
Josi Insausti Mujika  
Iñaki Andoni Antxia Etxebarria  
Miren Arrate Izagirre Iriondo  
Leire Lopez Zurutuza  
Jose Luis Elorza Mugica  
M<sup>a</sup> Carmen Gomez Mediavilla  
Pablo Parra Moreno  
Julio Herreros Serna Jorge

**ETORRI GABEAK:** Arantza Aseginolaza Azkargorta  
Jon Berbel Aiestaran  
Aimar Larrea Garin  
Jorge Juan Outeiral Fernandez

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

## **1.- AURREKO AKTA**

2003ko otsailaren 20ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

## **2.- EGITASMO PARTZIALA**

Alkate jaunak hitza eman ondoren, Patxi Plazaola hirigintza-batzordeburuak proposamenaren berri eman du:

**“Gaia: 8. Sektoreko Egitasmo Partzialari behin-behineko onespena ematea.**

2003ko urtarrilaren 28ko Alkatetzako Ebazpenaren bidez, 8. Sektoreko Egitasmo Partzialari hasierako onespena eman zitzaion eta espedientea jendaurrean jarri zen eta 2003ko otsailaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2003ko urtarrilaren 30eko Euskaldunon Egunkarian eta 2003ko otsailaren 1eko “Diario Vascon” 15 eguneko epean, iragarkiak argitaratu ziren. Aldi berean jabe guztiei banakako jakinarazpenak bidali zitzaizkien eta alegazio hauek izan dira aurkeztuak:

Antonio Rodriguez Castrok, G.P. ALGAR S.L.ren ordez, Francisco Guesalaga Lamarain eta Maria Jose Urquiola Lasak sinatutakoak.

Aldez aurretik Udalak eskatuta, Errepide Sailak txostena eman zuen, 2003ko otsailaren 27ko datarekin.

Aldi berean, udal-arkitektoak 2003ko apirilaren 1eko datarekin, txostena eman du aurkeztutako alegazioei buruz.

Horren ondorioz, batzorde honek, ELOLEko 22,2 c) artikularen arabera, Udalbatzari ondorengo akordio-proposamena egiten dio:

**Lehenik.** 8. Sektoreko Egitasmo Partziala, Garraio eta Plangintza Zuzendaritzako txostenean azaltzen diren baldintzei doitzea.

**Bigarren.** Txosten teknikoa kontuan izanda, aurkeztutako alegazioak ebaztea, hau da:

1º Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Saileko Lurzoruaren Plangintza eta Kudeaketarako Zerbitzuak egindako txostenaren arabera, Egitasmo Partzialak, bere ordenamendua, muga berriari doitu behar dio, bide-sistema orokorrari esleitutako 8. Sektorearen arloan barne.

Inguruabar hori, industri arlo nagusiaren ordenamendua aldatzea dakarren arren, ez da funtsezko aldaketa, izan ere, bide-sarearen zati baten eta aurreikusitako eraikinen lerroak doitzea besterik ez baita, proposatutako zuzkidura-lurzatiak (merkataritza- eta gizarte-erabilpenekoak) lekualdatuz (gehituz).

- 2º** Bide Sistema Orokorrari lotutako lursailen mugaketa berritik, lursail-azalera jakin batzuek hasierako jabeen itzultzeko aukera sortzen da.

Inguruabar honek, aurkeztutako hiru alegazioen estimazioa eragiten du adierazitako zentzuan, baina edozein kasutan ere Egitasmo Partziala erasaten ez duten alegazioak dira, izan ere, Egitasmoak ondorioztatutako inguruabarrak izan arren, hirigintzako dokumentua behin betiko onesteko unean egingarri den administrazioko jardunbide bereziaren bidez ebaztekoak baitira, egitasmoaren (Konpentsazio-proiektua) hirigintza-kudeaketan eragina dutela.

- 3º** A lurzatiari lotutako eraikigarritasun gabeko industri lurzoruen aipamena ez da zuzena, bereizkeriatzat jotzen da eta.

Ezaugarri horiek dituen lurzoria, eraikitako industri jardueraren eranskin diren instalazio jakinentzat eskura izateari lotzen zaio.

Kompentsazio-proiektua izango da jabego hori baloratu behar duena eta titularrari dagokion izendapen proportzionala emango diona.

Aipatutako ustezko bereizkeriazko tratua, beste lurzatiaren eraikigarritasun-ahalbidetaren zati bat kenduz ebazten da.

Lurraldearen baldintzen arabera egiten da ordenamendua eta bero berdintasunez zatitzen da.

- 4º** Desjabetutako lurzoruen arloan, bai Eusko Jaurlaritzak bai Foru Aldundiak desjabetuetan, Errepide Sailak egindako txostenetik abiatuta itzulera-eskubidea berenganatzen duten bakarrak, hirigintza-inguruabar hutsei begiratuta, haiek objektiboki helburu horretarako beharrezkoak ez direla irizten dituztenak dira. Gainerakoak, Foru Aldundiaren edo Eusko Jaurlaritzaren (alegazioan ez dira bereizten) izango dira eta beren lotura horri eutsi egingo diote desjabetzeari dagokionez, nahiz eta 8. Sektorearen barruan gelditu eta herri-erabilpen eta jabarikitzat hartuak izan.

**Hirugarren**. 8. Sektoreko Egitasmo Partzialari behin-behineko onespena ematea, aurreko bi puntuak kontutan izanik eta espedientea Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, hala badagokio, behin betiko onespena eman diezaion.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna aza ldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da hirigintza-batzordearen proposamena.

**3.- AURREKONTUA**. 2003. ekitaldi ekonomikorako aurrekontua onartzea.

a) Udalaren berriazko aurrekontua.

Alkate jaunaK: “Aurten aurkezten diren aurrekontuen helburua datorren agintealdiari eta korporazioari ateak ez ixtea da. Gastu korronteko kapitulu gehienak dezente igotzen dira. Ez dira igotzen kontusail nominatiboak direnak. Gastu korronteko kontusail berri asko sortzen dira, nolabait datorren korporazioak instrumentu zabal bat eta babes tekniko bat izateko, Udalaren martxari jarraipena emateko. Gobernu berriak aukera izango du, bere kudeaketa-plana gauzatzeko. Azpimarratu egin behar da, foru-fondoa bertan behera gelditu dela. Horrek esan nahi du, aurten, gutxi gorabehera 35 milioi pezeta galduko ditugula. Aldi berean esan beharra dago, aurten balioaren gaineko kontusaila izugarri jaisten dela. 40 milioi inguru gutxiago izango ditugu sarreretan eta etorkizunean ere hori konstantea izango da. Oraindik, eraikuntza-arloan, hainbat diru-sarrera izango ditugu, baina datorren urtetik aurrera hori ere jaitsi egingo da. Gero aprobetxamenduen kontusaila dago. Beasainen kalifikatuta dagoen lurzoru gehiena kudeatuta dago eta horren ondorioz ez digu emango %10eko aprobetxamendurik. Hori guztia kontuan izanda, Udalaren gaikuntza-inbertsioei aurre egiteko kontusaila 200 milioikoa izango da. Udalaren zorra nahiko ondo gelditzen da. Aurtengo urtearen bukaeran Udalaren zorra 400 milioikoa izango da. Hemen gauden ia guztiok badaramatzagu zortzi urte udalean eta sartu ginenean Udalaren zorra 1.400 milioikoa zen. Zorraren % 50a, 2005. urtean bukatuko da eta zor osoa berriz, 2008. urtean. Beraz, nik uste dut alderdi politiko guztiok adostuta ditugun inbertsio nagusi horiei aurre egiteko, Udala nahiko egoera onean gelditzen da.

Bestalde, aurtengo aurrekontuko inbertsio nagusienak hauek dira:

Igartzako indusketa (60.000 €), irisgarritasun -plana (60.000 €), Zazpiburrieta-Mariarats kaleetako hegalean sendokuntza-lanak (103.000 €), Nafarroa etorbidea, 51, inguruko estolda (60.000 €), skate -ak (120.000 €), Bernedo-enea asfaltatzea (120.000 €), 10. poligonoko obrak (60.102 €),

Arantzazu kaleko eskailerak (60.000 €), Igartza -Oletako espaloia (120.000 €), biltegi eta artxibotarako lokala (75.000 €), hirigintza eta zerbitzu sailtako bulegoak (125.000 €), Arau Subsidiarioen berrikusketa (51.740 €), trafiko-ikerketak (36.000 €), autoa (29.000 €), kale -asfaltatzea (53.327 €), hilerriko kaleak asfaltatzea (15.526 €).

Organismo autonomoen aurrekontuei buruz esan, Antzizar kiroldegiko aurrekontua igo egin dela baina udal-ekarpena aldiz, jaitsi. Musika Eskolako aurrekontua mantendu egiten da eta udalaren ekarpena berdina da. Kontuan izan behar da, aurten inbertsio dezente egin behar direla. Euskaltegiaren aurrekontua pixka bat jaitsi egiten da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “Después de repasar un poco los presupuestos hemos llegado a la conclusión de no entrar a debatir por capítulos el presupuesto. Hemos visto dos detalles que no nos han gustado. Primero, Udalbide (15.025 €). Ya que es una organización nacionalista, lo normal sería que la mantuvierais vosotros mismos, no con el dinero de todos los beasaindarras. Segundo, ayudas por transporte a familiares de presos (9.305 €). Pensamos que cuando alguien está en la cárcel es porque algo malo ha hecho y ha sido condenado. ¿Por qué los beasaindarras tienen que correr con los gastos de sus familiares?. Estas cantidades suman aproximadamente cuatro millones de pesetas. Este dinero no les vendría nada mal a las familias necesitadas del municipio. Por ello, vamos a votar en contra del presupuesto.”

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Guk lehengo urteko jarrera mantenduko dugu eta horren ondorioz, abstenitu egingo gara, baina aurrekontuaren xehetasunetan ez dugu sartu behar. Hemen gaudenon askorentzat azkeneko aurrekontua da. Egokia iruditu zaigu begirada botatzea nondik hasi ginen eta momentu honetan non gauden eta herria nola usten dugun datozenez. Nik uste dut, guk hartu genuen baino hobeto uzten dugula herria. Era berean uste dut, hasi ginenetik Beasainen aldetaren partaide izan garela, bai egin denarekin eta bai beste batzuek gauzatzeko onartutako proiektuekin. Balantzea egiterakoan, elementu positiboak eta negatiboak daude. Garbi dago proiektu garrantzitsuena Indar-eko proiektua izan dela. Bestalde, Beasain Lantzen martxan jarri da, baina babes ofizialeko etxebizitzetara buruz esan, Ezkiaga auzoan gai honekin puntu beltz bat dugula beti ere etxebizitza horien eraikitzea atzeratzen joan delako. Susmo txarrak sortzen dira, zeren eta ekimen pribatuko etxebizitzak azkar egiten dira eta aldiz babes ofizialeko etxebizitzak ez.

Bestalde esan beharra dago finantza-kudeaketa oso ona izan dela egin diren inbertsioak kontutan izanda. Une honetan hasieran baino zorpetze

txikiagoa dugu eta datorren korporazioak alde zabala dauka zorpetu beharra badu.

Guk hasiera batetik bultzatu nahi izan dugun proiektua, komun publikoena da. Bat geltokian jarri da, baina emaitza ez da ona izan. Benetan behar dutenentzat, jubilatuentzat, umeeekin doazen emakumeentzat, komun hori ez da batere praktikoa. Nik uste dut, Beasainek duen mugimenduarekin, auzo guztiek eta herriko eremu garrantzitsuenek komun publikoak izan behar lituzketela.

Eguneko zentroa. Agintealdi honen hasieran inauguratu zen eguneko zentroa, baina ikusten da zentro hori txiki gelditu dela eta eskaerak igo egin dira. Bere garaian komentatu zen Indar-eko txaletean egoki zitekeela eguneko zentroa, baina proiektu hori ez zen aurrera atera. Niretzat hor hutsegite bat izan genuen. Orain dauzkagun zenbakientzat proiektu hori nahiko kaskarra izan da.

Bista Alaiko etxebizitzak. Hor egoera larria da. Udalak lehenengo fasean kudeaketa ona egin zuen, baina orain gauden unean, Udalak bere legezko tresnak edo presiozkoak erabili beharko lituzke aseguru-etxeak epe motzean etxe horietako bizilagunentzat irtenbideak aurkitzera behartzeko. Bestela, enpresa pribatuen arteko gatazka izango da eta kaltetuak beti ere inolako errurik ez duten bizilagunek izango dira.

Balantze hau borobiltzeko nik esango nuke aipatu behar den beste elementu bat ere badagoela, hain zuen ere, Udalak herritarren arteko bizikidetasunaz duen ardura, nahiz eta ardura osoa berea ez izan. Agintealdia hasi genuenean ez zegoen bizkartzainik eta orain berriz udal honetako zinegotzi desberdinek bizkartzaina behar dute herrian bertan mugitzeko. Atentatu larriak izan dira eta horien artean hemengo zinegotzi batentzat zen eta zorionez hildakorik eta zauriturik izan ez zen bat. Baina orain dela urtebete pasatxo ETAk bi ertzain hil zituen herritarrentzat lan egiten ari zirenean. Badaude elementu batzuk arriskutsuak direnak eta gizartearengan eta giro politikoarengan eragina dutenak. Creo que el Ayuntamiento debe estar absolutamente atento en este tema para tomar una conciencia clara de fomento de la convivencia, tolerancia y respeto entre los seres humanos independientemente de las ideas que tenga cada cual. En los cuatro años que hemos estado aquí ha habido una actitud por parte de casi de todos los partidos políticos de intentar aminorar los elementos de tensión mayor que a veces se han podido generar en el pueblo por situaciones concretas.

Por último, a modo de despedida y a título personal, creo que ha habido lagunas, elementos positivos y negativos, pero en general, Jon, has sido un buen Alcalde de Beasain.”

Andoni Antxia jaunak (Beasaingo Sozialista Abertzaleak): “Azkeneko urteetan bezala, bere neurri eta maila onean baloratzen dira PPko zinegotziak aipatzen zituen kontusailak, hau da, Udalbideri eta presoen familietakoei bidaietarako ematen zaizkien dirulaguntzak, naiz eta ez izan guk nahiko genituzkeen kopurudunak. Hori positibotzat emanik, eskertzen da aurrekontua hurrengo korporazioarentzat irekia uztea.

Negatibotzat aipatuko genuke, PSE-EEkoek aipatutako arazoa, hau da, Ezkiaga auzoko babes ofizialeko etxebizitzak. Gure ustez irtenbidea ezagutzen dugu. Arazo honek erlazio zuzena du foru-fondoaren murrizpenarekin. Hemen, subsidiariorotasun-printzipioa aplikatzen hasi beharko genuke. Hau da, herriak egin dezakeena, egin dezala herriak eta goitik ez daitezela etorri zer egin behar den esatea. Beraz, bidali dirua Beasaina eta guk hemen egingo ditugu etxeak.

Garaia da eta bakoitzak izango ditu bere guneak balantzeak egiteko, baina guk ere aipatu nahi ditugu agintealdi hasieratik ona dauden diferentziak. Agintealdi-hasieran gu legezkoak ginen eta orain legez kanpokoak gara, zuen onerako egindako lege horri esker. Agintealdi-hasieran euskarazko egunkaria genuen eta orain berriz ez dugu. Agintealdi-hasieran torturatu egiten zen eta kasu honetan ezer ez da aldatu, agintealdi-bukaeran ere torturatzen jarraitzen dute. Ez dakidana zera da Maragall-ek agintealdi-hasieran zer pentsatzen zuen, orain aldiz badakigu, baina zuek ahoa itxi diozue. Agintealdi-hasieran ez zegoen demokraziarik eta orain ere demokraziarik gabe jarraitzen dugu.

Bestalde Osoko Bilkuren iraupenari buruz esan, Udalbatzaren Osoko Bilkurak ez liratekeela hainbeste luzatuko Udal honetako funtzionamendu-araua ondo beteko bagenu. Interbentzio bakoitzean euskaraz eta gaztelaniaz egin behar bada, denbora bikoiztu egiten da. Denok euskaraz jakingo bagenu gaur bertan Osoko Bilkura hau lehenago bukatuko zatekeen.”

Alkate jaunak: “Eskerrak ematen dizkizuet azkeneko aurrekontu hau zuen abstentzioekin onartu ahal izango delako, nahiz eta PPkoek aurkako botoa eman. Jose Luis Elorzari ere eskerrak ematen dizkiot esan duenagatik, baina badakizue nik egin dudana denon babesarekin izan dela. Dena dela onartzen dut kritika, zeren eta badaramatzagu bi agintealdi Ezkiaga auzoko babes ofizialeko etxebizitzak atzetik eta nolabait herriak dituen beharrei proiektu horrekin ez diogu behar adina erantzun. Agintealdi honetan hasi eta martxan dauden sustapen guztiak kontuan izanda, 450 etxebizitza egin dira eta horietatik 106 babes ofizialekoak dira. Hori, % 25 da. Hortik kanpo esan, Ezkiaga auzoko bi sustapen esleituta daudela eta hurrengo agintealdirako lurak bideratuta ditugula, 171 babes ofizialeko etxebizitza egiteko.

Bista Alaiko arazoari buruz esan, Udalak egin zezakeen guztia egin duela, baina ez gara oso zuzenak izan, zeren eta Beasainen, urtarrilaren 20an,

beste ezbehar bat ere izan zen eta beste lau familia etxetik kanpo daude. Udalak ez du inolako erantzukizunik, baina familia horiek ez dute lortu Bista Alaikoek lortu zutena, hau da, aseguru-etxea kaltetuez arduratu eta etxeak bilatzen etab. egindako gastuak bere gain hartzea.

Bista Alaiko kasuan ez dakigu zer gehiago egin, aurri-espedita martxan jarrita daukagu, bizilagunen abokatuak, aseguru-etxe guztiei jakinarazteko eskatu zigun, alegia, hori Udaltzako onartu zuela eta espeditari hasiera eman geniola. Dakiguna da, sustatzaileak auzitara eraman duela horma egin zuen enpresa.

Bukatzeko, Jose Luisi eskerrak eman nahi nizkioke egiten duen balantze baikorragatik.

Foru-fondoaz Andoniri esan, Europan hemen baino diru gehiago askatasun guztiarekin erabiltzen dituzten herrialdeak ez ditudala ezagutzen. Ezkiaga auzoko babes ofizialeko etxeen arazoa ez da arazo ekonomikoa, kudeaketa-arazoa baizik. Ezkertzen diot, guk aurkeztu ditugun aurrekontuen helburua datorren korporazioari atea ez ixtea dela ulertzea.”

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE): “Andonik esan du Plenoak luzatu egiten direla bi hizkuntzetan hitz egiten dugulako. Euskara bultzatzeko, inposaketa erabilita baino mesede handiagoa egiten dugu, euskara ez dakitenak errespetuz tratatzen baditugu. Euskara ez jakitea ez da bekaketa, baizik eta errealitatea. Gauzak aldatzen ari dira, baina ez dakitenak errespetuz tratatu behar ditugu. Plenoen iraupena ez zait iruditzen inolako arazo denik.”

Arrate Izagirre andreak (Beasaingo Sozialista Abertzaleak): “Hemen ez da inoiz izan errespetu faltarik. Alderantziz bai. Ez da gurea errespetatu.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, 2003. ekitaldi ekonomikorako aurrekontua bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 6 (EAJ/PNV-EA)

Aurkako botoak: 1 (PP)

Abstentzioak: 6 (Beasaingo Sozialista Abertzaleak, PSE-EE)

Horren ondorioz, aldeko botoak aurkakoak baino gehiago direnez, 2003. ekitaldirako Udalaren aurrekontua, Musikako Eskolako aurrekontua, Udal-euskaltegiko aurrekontua, Antzizar kirolegiko aurrekontua, aurrekontu bateratua eta aurrekontua gauzatzeko udal-araua, onartu egin dira.

#### **a) 2003. urteko Udalaren aurrekontua.**

**GASTUEN EGOERA/ESTADO GASTOS**

I. KAPITULUA	Pertsonalaren ordainketak Remuneración del personal	2.293.362,18
II. KAPITULUA	Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak Compra de bienes corrientes y servicios	3.680.432,22
III. KAPITULUA	Interesak Intereses	108.466,30
IV. KAPITULUA	Transferentzia arruntak Transferencias corrientes	1.962.638,10
	<b>Eragiketa Arrunten Guztizkoa/Total Operaciones Corrientes</b>	<b>8.044.898,80</b>
VI. KAPITULUA	Inbertsio errealak Inversiones reales	1.702.516,28
VII. KAPITULUA	Kapital Transferentziak Transferencias de capital	242.191,52
VIII. KAPITULUA	Finantza aktiboen aldaketak Variaciones activo financiero	42.072,00
IX. KAPITULUA	Finantza pasiboen aldaketak Variaciones pasivo financiero	531.738,84
	<b>Kapital-eragiketen Guztizkoa/Total Operaciones de Capital</b>	<b>2.518.518,64</b>

**AURREKONTUKO GASTUAK GUZTIRA  
TOTAL PRESUPUESTO GASTOS****10.563.417,44****SARREREN EGOERA/ESTADO DE  
INGRESOS**

EUROAK

**2.003**

I. KAPITULUA	Zuzeneko zergak Impuestos directos	2.220.810,00
II. KAPITULUA	Zeharkako zergak Impuestos indirectos	519.360
III. KAPITULUA	Tasak eta beste sarrera batzuk	1.662.117,19

	Tasas y otros ingresos	
IV. KAPITULUA	Transferentzia arruntak Transferencias corrientes	5.467.302,25
V. KAPITULUA	Ondare-sarrerak Ingresos patrimoniales	139.926,00
	<b>Eragiketa Arrunten Guztizkoa/Total Operaciones Corrientes</b>	<b>10.009.515,44</b>
VI. KAPITULUA	Inbertsio errealen besterentzeak Enajenación inversiones reales	1.500,00
VII. KAPITULUA	Kapital-transferentziak Transferencias de capital	10.330,00
VIII. KAPITULUA	Finantza aktiboak Activos financieros	42.072,00
IX. KAPITULUA	Finantza pasiboak Pasivos financieros	500.000,00
	<b>Kapital-eragiketen Guztizkoa/Total Operaciones de Capital</b>	<b>553.902,00</b>

**AURREKONTUKO SARRERAK GUZTIRA**  
**TOTAL PRESUPUESTO INGRESOS**

**10.563.417,44**

**b) Musika Eskolako aurrekontua.**

	GASTUEN EGOERA/ESTADO GASTOS	EUROAK	
		EUROS	
I. KAPITULUA	Personalaren ordainketak Remuneración del personal	402.473,85	
II. KAPITULUA	Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak Compra de bienes corrientes y servicios	38.186,40	
III. KAPITULUA	Interesak Intereses		
IV. KAPITULUA	Transferentzia arruntak Transferencias corrientes		

	<b>Eragiketa Arrunten Guztizkoa/Total Operaciones Corrientes</b>	<b>440.660,25</b>	
VI. KAPITULUA	Inbertsio errealak	13.334,29	
	Inversiones reales		
VII. KAPITULUA	Kapital Transferentziak		
	Transferencias de capital		
VIII. KAPITULUA	Finantza aktiboen aldaketak		
	Variaciones activo financiero		
IX. KAPITULUA	Finantza pasiboen aldaketak		
	Variaciones pasivo financiero		
	<b>Kapital-eragiketen Guztizkoa/Total Operaciones de Capital</b>	<b>13.334,29</b>	
	<b><u>AURREKONTUKO GASTUAK GUZTIRA</u></b>		<b>453.994,54</b>
	<b><u>TOTAL PRESUPUESTO GASTOS</u></b>		

	SARREREN EGOERA/ESTADO INGRESOS	EUROAK	
		EUROS	
I. KAPITULUA	Zuzeneko zergak		
	Impuestos directos		
II. KAPITULUA	Zeharkako zergak		
	Impuestos indirectos		
III. KAPITULUA	Tasak eta beste sarrera batzuk	127.274,00	
	Tasas y otros ingresos		
IV. KAPITULUA	Transferentzia arruntak	326.720,54	
	Trasferencias corrientes		
V. KAPITULUA	Ondare-sarrerak		
	Ingresos patrimoniales		
	<b>Eragiketa Arrunten Guztizkoa Total Operaciones Corrientes</b>	<b>453.994,54</b>	

VI. KAPITULUA	Inbertsio errealeen besterentzeak		
	Enajenación inversiones reales		
VII. KAPITULUA	Kapital Transferentziak		
	Transferencias de capital		
VIII. KAPITULUA	Finantza aktiboak		
	Activos financieros		
IX. KAPITULUA	Finantza pasiboak		
	Pasivos financieros		
	<b>Kapital-eragiketen Guztizkoa</b>	<b>0,00</b>	
	<b>Total Operaciones de Capital</b>		
	<b><u>AURREKONTUKO SARRERAK GUZTIRA</u></b>		453.994,54
	<b><u>TOTAL PRESUPUESTO INGRESOS</u></b>		

**c) Udal Euskaltegiko aurrekontua.**

	<b>GASTUEN EGOERA/ESTADO GASTOS</b>	<b>EUROAK</b>	
		<b>EUROS</b>	
I. KAPITULUA	Pertsonalaren ordainketak	325.480,00	
	Remuneración del personal		
II. KAPITULUA	Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak	22.780,00	
	Compra de bienes corrientes y servicios		
III. KAPITULUA	Interesak		
	Intereses		
IV. KAPITULUA	Transferentzi arruntak	8.469,00	
	Transferencias corrientes		
	<b>Eragiketa Arrunten Guztizkoa/Total Operaciones Corrientes</b>	<b>356.729,00</b>	
VI. KAPITULUA	Inbertsio errealak	2.564,00	
	Inversiones reales		
VII. KAPITULUA	Kapital Transferentziak		
	Transferencias de capital		

VIII. KAPITULUA	Finantza aktiboen aldaketak		
	Variaciones activo financiero		
IX. KAPITULUA	Finantza pasiboen aldaketak		
	Variaciones pasivo financiero		
	<b>Kapital-eragiketen Guztizkoa/Total Operaciones de Capital</b>	<b>2.564,00</b>	
	<b><u>AURREKONTUKO GASTUAK GUZTIRA</u></b>		<b><u>359.293,00</u></b>
	<b><u>TOTAL PRESUPUESTO GASTOS</u></b>		

	SARREREN EGOERA/ESTADO INGRESOS	EUROAK	
		EUROS	
I. KAPITULUA	Zuzeneko zergak		
	Impuestos directos		
II. KAPITULUA	Zeharkako zergak		
	Impuestos indirectos		
III. KAPITULUA	Tasak eta beste sarrera batzuk	142.471,18	
	Tasas y otros ingresos		
IV. KAPITULUA	Transferentzia arruntak	216.821,82	
	Trasferencias corrientes		
V. KAPITULUA	Ondare-sarrerak		
	Ingresos patrimoniales		
	<b>Eragiketa Arrunten Guztizkoa</b>	<b>359.293,00</b>	
	<b>Total Operaciones Corrientes</b>		
VI. KAPITULUA	Inbertsio errealen besterentzeak		
	Enajenación inversiones reales		
VII. KAPITULUA	Kapital Transferentziak		
	Transferencias de capital		
VIII. KAPITULUA	Finantza aktiboak		
	Activos financieros		
IX. KAPITULUA	Finantza pasiboak		
	Pasivos financieros		

	<b>Kapital-eragiketen Guztizkoa</b> <b>Total Operaciones de Capital</b>		<b>0,00</b>
	<b><u>AURREKONTUKO SARRERAK GUZTIRA</u></b> <b><u>TOTAL PRESUPUESTO INGRESOS</u></b>		<b><u>359.293,00</u></b>

**d) Antzizar kiroldetik aurrekontua.**

	GASTUEN EGOERA/ESTADO GASTOS	EUROAK	
		EUROS	
I. KAPITULUA	Pertsonalaren ordainketak	156.490,00	
	Remuneración del personal		
II. KAPITULUA	Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak	665.060,00	
	Compra de bienes corrientes y servicios		
III. KAPITULUA	Interesak	625,00	
	Intereses		
IV. KAPITULUA	Transferentzia arruntak		
	Transferencias corrientes		
	<b>Eragiketa Arrunten Guztizkoa/Total Operaciones Corrientes</b>	<b>822.175,00</b>	
VI. KAPITULUA	Inbertsio errealak	15.000,00	
	Inversiones reales		
VII. KAPITULUA	Kapital Transferentziak		
	Transferencias de capital		
VIII. KAPITULUA	Finantza aktiboen aldaketak		
	Variaciones activo financiero		
IX. KAPITULUA	Finantza pasiboen aldaketak		
	Variaciones pasivo financiero		
	<b>Kapital-eragiketen Guztizkoa/Total Operaciones de Capital</b>	<b>15.000,00</b>	
	<b><u>AURREKONTUKO GASTUAK GUZTIRA</u></b>		<b>837.175,00</b>
	<b><u>TOTAL PRESUPUESTO GASTOS</u></b>		

	SARREREN EGOERA/ESTADO INGRESOS	EUROAK	
		EUROS	
I. KAPITULUA	Zuzeneko zergak		
	Impuestos directos		
II. KAPITULUA	Zeharkako zergak		
	Impuestos indirectos		
III. KAPITULUA	Tasak eta beste sarrera batzuk	519.380,00	
	Tasas y otros ingresos		
IV. KAPITULUA	Transferentzia arruntak	307.107,00	
	Trasferencias corrientes		
V. KAPITULUA	Ondare-sarrerak	10.688,00	
	Ingresos patrimoniales		
	<b>Eragiketa Arrunten Guztizkoa</b>	<b>837.175,00</b>	
	<b>Total Operaciones Corrientes</b>		
VI. KAPITULUA	Inbertsio errealeen besterentzeak		
	Enajenación inversiones reales		
VII. KAPITULUA	Kapital Transferentziak		
	Transferencias de capital		
VIII. KAPITULUA	Finantza aktiboak		
	Activos financieros		
IX. KAPITULUA	Finantza pasiboak		
	Pasivos financieros		
	<b>Kapital-eragiketen Guztizkoa</b>	<b>0,00</b>	
	<b>Total Operaciones de Capital</b>		
	<b><u>AURREKONTUKO SARRERAK GUZTIRA</u></b>		837.175,00
	<b><u>TOTAL PRESUPUESTO INGRESOS</u></b>		

e) “Beasain Lantzen, S.A.ren” udal sozietate publikoaren aurrekontua.

	GASTUEN EGOERA/ESTADO GASTOS	EUROAK	
--	------------------------------	--------	--

		EUROS	
I. KAPITULUA	Pertsonalaren ordainketak		
	Remuneración del personal		
II. KAPITULUA	Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak	39.961,67	
	Compra de bienes corrientes y servicios		
III. KAPITULUA	Interesak	2.797,71	
	Intereses		
IV. KAPITULUA	Transferentzia arruntak		
	Transferencias corrientes		
	<b>Eragiketa Arrunten Guztizkoa/Total Operaciones Corrientes</b>	<b>42.759,38</b>	
VI. KAPITULUA	Inbertsio errealak	380.591,51	
	Inversiones reales		
VII. KAPITULUA	Kapital Transferentziak		
	Transferencias de capital		
VIII. KAPITULUA	Finantza aktiboen aldaketak		
	Variaciones activo financiero		
IX. KAPITULUA	Finantza pasiboen aldaketak	455.000,00	
	Variaciones pasivo financiero		
	<b>Kapital-eragiketen Guztizkoa/Total Operaciones de Capital</b>	<b>835.591,51</b>	
	<b><u>AURREKONTUKO GASTUAK GUZTIRA</u></b>		<b>878.350,89</b>
	<b><u>TOTAL PRESUPUESTO GASTOS</u></b>		

	SARREREN EGOERA/ESTADO INGRESOS	EUROAK	
		EUROS	
I. KAPITULUA	Zuzeneko zergak		
	Impuestos directos		
II. KAPITULUA	Zeharkako zergak		
	Impuestos indirectos		
III. KAPITULUA	Tasak eta beste sarrera batzuk		
	Tasas y otros ingresos		

IV.KAPITULUA	Transferentzia arruntak		
	Trasferencias corrientes		
V. KAPITULUA	Ondare-sarrerak	15.775,48	
	Ingresos patrimoniales		
	<b>Eragiketa Arrunten Guztizkoa</b>	<b>15.775,48</b>	
	<b>Total Operaciones Corrientes</b>		
VI. KAPITULUA	Inbertsio errealeen besterentzeak	794.284,95	
	Enajenación inversiones reales		
VII. KAPITULUA	Kapital Transferentziak		
	Transferencias de capital		
VIII. KAPITULUA	Finantza aktiboak	-28.213,37	
	Activos financieros		
IX. KAPITULUA	Finantza pasiboak	96.503,83	
	Pasivos financieros		
	<b>Kapital-eragiketen Guztizkoa</b>	<b>862.575,41</b>	
	<b>Total Operaciones de Capital</b>		
	<b><u>AURREKONTUKO SARRERAK GUZTIRA</u></b>		878.350,89
	<b><u>TOTAL PRESUPUESTO INGRESOS</u></b>		

## f) Aurrekontu bateratua.

	GASTUEN EGOERA/ESTADO GASTOS	EUROK EUROS
I. KAPITULUA	Pertsonalaren ordainketak Remuneración del personal	3.177.806,03
II. KAPITULUA	Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak Compra de bienes corrientes y servicios	4.446.420,29
III. KAPITULUA	Interesak Intereses	111.889,01
IV. KAPITULUA	Transferentzia arruntak Transferencias corrientes	1.351.554,63

	<b>Eragiketa Arrunten Guztizkoa/Total Operaciones Corrientes</b>	<b>9.087.669,96</b>
VI. KAPITULUA	Inbertsio errealak Inversiones reales	2.114.006,08
VII. KAPITULUA	Kapital Transferentziak Transferencias de capital	242.191,52
VIII. KAPITULUA	Finantza aktiboen aldaketak Variaciones activo financiero	42.072,00
IX. KAPITULUA	Finantza pasiboen aldaketak Variaciones pasivo financiero	986.738,84
	<b>Kapital-eragiketen Guztizkoa/Total Operaciones de Capital</b>	<b>3.385.008,44</b>

**AURREKONTUKO GASTUAK GUZTIRA**  
**TOTAL PRESUPUESTO GASTOS**

**12.472.678,40**

	SARREREN EGOERA/ESTADO INGRESOS	EUROK EUROS
I. KAPITULUA	Zuzeneko zergak Impuestos directos	2.220.810,00
II. KAPITULUA	Zeharkako zergak Impuestos indirectos	519.360,00
III. KAPITULUA	Tasak eta beste sarrera batzuk Tasas y otros ingresos	2.451.242,37
IV. KAPITULUA	Transferentzia arruntak Trasferencias corrientes	5.698.399,14
V. KAPITULUA	Ondare-sarrerak Ingresos patrimoniales	166.389,48
	<b>Eragiketa Arrunten Guztizkoa/Total Operaciones Corrientes</b>	<b>11.056.200,99</b>
VI. KAPITULUA	Inbertsio errealen besterentzeak Enajenación inversiones reales	795.784,95
VII. KAPITULUA	Kapital Transferentziak Transferencias de capital	10.330,00

VIII. KAPITULUA	Finantza aktiboak Activos financieros	13.858,63
IX. KAPITULUA	Finantza pasiboak Pasivos financieros	596.503,83
	<b>Kapital-eragiketen Guztizkoa/Total Operaciones de Capital</b>	<b>1.416.477,41</b>

**AURREKONTUKO SARRERAK GUZTIRA**  
**TOTAL PRESUPUESTO INGRESOS**

12.472.6

**g) Aurrekontua gauzatzeko udal-araua.**

**1. artikulua.- Printzipio orokorrak**

Aurrekontuaren onespén, kudeaketa eta likidazioa Hazienda Lokalak erregulatzen dituen, abenduaren 28ko, 39/1988 Legearen, apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuaren eta Arau honetako xedapenei lotuta egin beharko dira. Arau honen indarraldia Aurrekontuarena izango da. Beraz, Aurrekontuaren luzapen kasuan, epe horretan ere oinarri hauek indarrean izango dira.

**2. artikulua.- Aurrekontu Orokorraren edukia**

Udal sektore publikoaren Aurrekontu Orokorra, gastu eta sarrera bateratuak 12.472.678,40,- eurokoak dituenak, honako hauek osatuko dute:

- a) Udalaren Aurrekontuak, 10.563.417,44,- euroko gastu eta sarrerak dituenak.
- b) Beasaingo Udal Euskaltegia organismo autonomoaren Aurrekontuak, 359.293,00,- euroko gastu eta sarrerak dituenak.
- c) Beasaingo Loinatz Musika Eskola Publikoa organismo autonomoaren Aurrekontuak, 453.994,54,- euroko gastu eta sarrerak dituenak.
- d) Antzizar Udal-kiroldegia organismo autonomoaren Aurrekontuak, 837.175,00,- euroko gastu eta sarrerak dituenak.
- e) Beasain Lantzen, S.A.ren aurrekontuak, 878.350,89,- euroko gastu eta sarrerak dituenak.

### 3. artikulua. - Kredituen lotesletza juridikoen mailak

Gastuetarako kredituak, Aurrekontuan edota horren aldaketetan berariaz onetsi diren helburuetarako bakarrik erabili ahal izango dira.

Onetsitako kredituak mugatzaileak eta lotesleak izango dira, honako lotesletza-mailaren arabera:

- \* Programa funtzionala eta kontzeptua, inbertsio errealetan, kapitalezko transferentzietan eta finantza-aktiboetan.
- \* Programa funtzionala, kapitulua eta azpiorganoa, ondasun arruntetan, transferentzia arruntetan eta zerbitzuen erosketetan.
- \* Kapitulua, pertsonalaren gastuetan, interesetan eta finantza-pasiboetan.

### 4. artikulua.- Kreditu-aldaketaren erregimenari buruzko arauak

Izendapenik ez duen eta 3. artikuluan xedatutako lotesletza-maila gainditzen duen gastua egin behar denean, apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuaren 34. artikuluan zerrendatutako arteen dagokion kreditu-aldaketaren espedientea izapidetu beharko da, legezko aginduen eta Oinarri hauetan zehaztutakoaren arabera.

#### 1.- Kreditu zabalkorrak

500/1990 Errege Dekretuaren 39. artikuluan xedatu bezala, kreditu-zabalkuntza, Arau hauetan zehazki zerrendatutako izaera zabalkorra duten kontusailetakoren batean kreditua gehituz eta kreditu-eragiketetatik ez datozen lotutako baliabideen arabera zehazten den aurrekontuko gastuen igoera da. Zabalkuntza egin ahal izateko, beharrezkoa da zabaldu nahi den kreditura erasandako sarreraren aurrekontuan aurreikusitakoak baino eskubide gehiagoren onespina.

Gastuen Aurrekontuko honako kontusail hauek zabalkorrak izango dira:

KREDITU ZABALKORRAK			FINANTZAKETA	
KONTUSAILA	IZENA	HAS.ZENB.	KONTUSAILA	IZENA
90.214.121.00.00	Ezbeharrak	9.015,18	2.00.00.399.000.00.02	Hondamenak
90.227.551.10.01	Egik.Subsidiarioak	6.010,12	2.00.00.480.000.00.03	Egik. Sub. Ekarp.

Kredituen zabalkuntzarako espedientea izapidetu eta Alkate-Lehendakariak onartu beharko du.

#### 2.- Kreditu Transferentziak

Programa funtzional baten barneko transferentziak Udal Entitatearen Lehendakariaren eskuduntzakoak izango dira, inbertsio errealetarako aurreikusitako izendapenak gutxi ditzatenak izan ezik, Osoko Bilkurak onetsiko ditu eta.

### *3.- Kreditu Sorkuntza eta Kreditu-gerakinen txertaketa*

500/1990 Errege Dekretuaren 43 eta 47 artikuluetan xedatutako Kreditu sorkuntza eta Kreditu-gerakinen txertaketarako espedienteen onespenerako eskumena, Alkateak izango du.

## **5. artikulua.- Aurrekontua egikaritzeko jardunbidea erregulatzeko arauak**

### *1.- Gastuen Aurrekontua gauzatzeko faseak*

Gastuen Aurrekontua honako fase hauetan kudeatu beharko da:

- a) Gastuaren baimena.
- b) Gastuaren erabilera.
- c) Obligazioaren onarpena.
- d) Ordainketaren agindua.
- e) Ordainketa gauzatzea.

### *2.- Gastuen baimena eta erabilera*

Gastuen baimenean eta erabileran eskumen-arau hauek beteko dira:

- a) Lehendakariaren eskuduntza izango da 60.100,- eurotik beherako gastuak baimentzea eta erabiltzea.
- b) Gobernu-batzordearen eskuduntza izango da 60.100,- eurotik gorako gastuak baimentzea eta erabiltzea.

Gastuak baimentzeko espedientea, alorreko ordezkariak proposatu ondoren hasiko da, gastuaren beharra zuritzeko berak egiten duen memoriarekin batera, hain zuzen. Kontuhartzaileak espedienteari buruzko txostena idatzi beharko du, 4/1991 Foru Arauak 65etik 74ra artikuluetan jasotakoaren arabera.

3.- Pertsonalari aurrerakinak (10.00.823.121.00.01 kontusaila) eta Pertsonalari aurrerakinak: etxebizitza-erosketarako (10.00.823.121.00.02 kontusaila) deituriko kontusailletako kredituaren erabilgarritasunak, interesatuek aldez aurretik eskatzea eskatuko du, proposatutako gastua egin beharra eta bere aurrekontua zurituz. Hazienda-batzordeak, mailegua ematearen bidez kototasunaz irizpena emango du eta aldekoa den kasuan, Alkate jn.aren Dekretu bidez egikariturako da.

#### *4.- Obligazioaren onarpena*

Lehendakariak onartuko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortutako obligazioak.

Aldez aurretik, zerbitzuburuak, eginbide bat egin beharko du faktura bakoitzean, alorreko ordezkariaren oniritzia daramana, honakoa jasoz:

- \* Materiala, obra edota hornidura hartu izanaren adierazpena eta berarekiko adostasuna.
- \* Zein aurrekontu-kontusailetan eta zein katebururen erreferentziapean kontabilizatu behar den.

#### *5.- Ordainketaren agindua*

Udal entitateko lehendakariaren esku dago aurrez onartutako obligazioen ordainketa egiteko agintzea.

#### *6.- Aurrekontua gauzatzeko faseak metatzea*

Aurrekontuko gastuen izaera nahiz ekonomiaren eta administrazio-arintasunaren irizpidea kontuan hartuz, haiek gauzatzeko faseak administrazio-ekintza bakar batean meta daitezke, honako kasuetan eta bertan aipatzen diren mugei barne:

- \* Gastuen baimena eta erabilera, udal entitatean legez hartutako konpromisoetatik datozenean eta burutu beharreko zerbitzu, obra edota horniduraren zenbatekoa zehaztasunez ezagutzen denean: berez berritzen diren aldi baterako kontratuak, errentamenduak, maileguren interesak eta amortizazioak eta esleipen zuzeneko erosketak.
- \* Gastuaren baimena, erabilera eta obligazio-onarpena, eragiketa arrunten gastuetan, kontratazio prozedurari atxikiak ez direnean, dietak eta joan-etorriak, bestelako finantza-gastuak eta langileei egindako aurrerakinak. Multzo honetan sartzen dira, halaber, langileen hileroko nomina-ordainketak eta udal-entitatearen kargura diren Gizarte Segurantzaren kuotak ere.

7.- Okerbidez egindako ordainketa guztien erantzule izango dira pertsonalki, sailtako buru, funtzionario eta eragiten dituzten Zinegotziak, bai kredituak kitatzean, dokumentuak luzatzean edo konpromisoak onartzean, bakoitzari emanak zaizkion eginkizunen arabera.

Edozein mailatako agintari eta funtzionarioak ere, maltzurkeria, erru edo utzikeria larriarengatik ebazpenak onartu edota legezko xedapenen arauak hausten dituzten egintzak egiten badituzte, Udaltzariari haien ondoriozkoak diren kalteak eta galerak ordaintzera behartuta egongo dira.

Ordainketa Agintzailea eta Kontuhartzailea erantzukizun horietatik salbu egongo dira eta dagokien arloan idatzizko medeatze bidez zurituko dute beren jarduna, akordio, egintza edo ebazpenaren legez kanpokotasun edo hutsaltasunaz.

8.- Salmentak: Baliogabeko gauzen salmenta, Alkatetza-Lehendakaritzaren aginduz egingo da 250.000,- pta. baino gutxiagoko balioa dutenean, baina ongi ulertuta, oinarri hau, Udalaren beste erabakirik behar ez duten salmentei bakarrik dagokiela

## **6. artikulua.- Zuritu beharreko ordainketak eta kutxa finkoko aurrerakinak**

Zuritu beharreko ordainketak eta kutxa finkoko aurrerakinak 47/1991 Fako 43. artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztuko dira. Aldizkako izaera duten edota errepikakorrak diren xedeetarako zuritu beharreko ordainketek kutxa finkoko aurrerakin izaera izango dute eta ondorengo prozeduraren arabera emango dira:

Kutxa finkoko aurrerakinak behin bakarrik baimenduko dira, dagokion arloko batzordeburuak proposatuta, Alkatetzaren ebazpen bidez eta bertan ondorengo kontzeptuak aipatuko dira: baimentzen den saila, kudeaketaren arduraduna eta kopurua.

Fondo-hornidura hori automatikoki berritu ahal izango da aurreko likidazioa aurkeztu ondoren.

Likidazioarekin batera, egindako ordainketa guztien frogagiriak aurkeztu beharko dira, Saileko buruak ontzat emanda, ordainketa zein kontusailaren kargura egiten den adierazpenarekin.

Aurrerakinen ordainketetarako dagokion ordainketa-agindua sortu beharko da "zuritzeko" izaeraz eta lehen aipaturiko araudiaren arabera.

Hazienda-batzordeari emango zaizkio kontuak, aurrerakin horien erabilpena birkontsideratu ahal izateko.

Aurrerakinen jasotzaileek, hala hobetsiz gero, kontu korrante bat ireki ahal izango dute finantza-erakunde batean udalaren izenean, jasotako dirutza bertan sartu eta, horren beharra dutenean baimendutako xedeetarako, beren sinadurarekin soilik erabili ahal izateko. Guztiz galarazita gelditzen da dirutza hori nor bere helburu pertsonaletarako erabiltzea.

Udal-diruzainak liburu laguntzaile bat bete beharko du kutxa finkoko aurrerakinak kontabilizatzeke, bertan, jasotzaile bakoitzari emandako diru-kopurua eta zuritutako zenbatekoa zehaztuz.

Kutxa finkoko aurrerakinen jasotzaileek udal-kontuhartzaitzari eman beharko diote jasotako dirutzaren berri, kontabilitatea eta egindako ordainketen jatorrizko ordainagiriak aurkeztuz. Berri-emate hau aurrerakina eman eta handik hiru hilabetera egin beharko da gehienez, beti ere, abenduaren 15a baino lehen.

Aurrerakinak zuritzean, dagokion aurrekontuko kontusailari aplikatu beharko zaizkio ordainketa-aginduak.

## **7. artikulua.- Dieta eta joan-etorrien kalteordainak.**

Funtzionarioek eta pertsonal kontratatuak egindako zerbitzuen kalteordainei buruzko Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan jasotako kalteordainak jasotzeko eskubidea izango dute.

Lehendakariak eta gainerako hautetsiek, udal-barrutitik kanpora egiten dituzten joan-etorriengatik, funtzionario eta pertsonal kontratatuentzat ezarritako dieta eta joan-etorrien kalteordainak jasotzeko eskubidea izango dute.

Kasu guztietan ere, bai hautetsiek, bai gainerako udal-langileek, egindako bidaiaren memoria idatzi beharko dute, bertan noiz eta nora joan diren, eta egindako gestioen berri jasoaz. Agiri honetan bertan adierazi beharko dute onartutako tarifen arabera zenbatekoa den jaso behar duten kalteordainaren zenbatekoa.

#### **8. artikulua.- Kredituak aurrerapenez txertatzea**

Ondorengo ekitaldiko aurrekontuan, likidazioa onartu aurretik, oraingo ekitaldiari edo horren aldaketei dagozkien kredituak txertatu ahal izango dira, baldin eta abenduaren 31n obligazioa onartu gabe badaude eta guztiek batera beharkizun hauek betetzen badituzte:

- 500/1990 Errege Dekretuaren 47.1 artikuluan jasotako inguruabarretako batean egotea.
- Zerbitzuburuaren txostenaren bitartez kreditua aurrerapenez txertatzeko beharra frogatzea.
- Aldi berean kreditu hori ekitaldi honetan txertatu ez izana, diru-sarrera helburudunen bitartez finantzatutako kapital eragiketak direnean salbu.

Txertaketa aurreratua ekainaren 30a baino lehen egin behar da beti.

Kredituen txertaketa aurreratuek jatorrizko aurrekontuan zuten helburu berbera izango dute.

Kredituen txertaketa aurreratua gauzatuko da, baldin eta horretarako nahiko finantza-baliabide badaude. Horretarako, finantzaketa-iturritzat hartuko dira apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuaren 48.2 artikuluan jasotakoak.

Lehendakariak onartuko du kredituen txertaketa aurreratua, Fondoek kontuhartzaileak txostena egin ondoren, besteak beste nahiko finantzabide badagoela adieraziz.

Kredituen behin betiko txertaketa egin baino lehen, aurreko artikuluetan behin-behineko txertaketa arautua duten kredituen ordainketak izapidetu ahal izango dira.

Kredituen txertaketa aurreratua behin-behinekoa izango da eta aurrekontua likidatu ondoren behin betiko onartuko da.

**4.- INBENTARIOA.** 2002-12-31ko datari dagokion udal-inbentarioaren zuzenketa.

Alkate jaunak, Jose Antonio Guirado, Hazienda batzordeburuari hitza eman dio eta hark batzordearen proposamenaren berri eman du, hau da: "2002ko abenduaren 31ko datarekin egindako inbentarioaren zuzenketa onartzea."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute. Horren ondorioz, bozketa eginda eta aho batez onartu da 2002ko abenduaren 31ko datarekin egindako inbentarioaren zuzenketa.

**ONDASUNEN INBENTARIOA ETA ERREGISTROAREN ZERRENDA**  
**UDALA 2002**

	<b>Erre.Histo.Kos</b>	<b>Erre.Meta.Amo.</b>	<b>Neto Kontabl</b>
<b>ONDASUN HIGIEZINAK</b>	<b>27.815.948,69 €</b>	<b>2.203.726,76 €</b>	
ERAIKUNTZAK	9.279.938,96 €	1.829.420,84 €	
LURSAILAK	3.444.833,01 €	- €	
JOLASTOKIAK	2.952.130,61 €	- €	
BIDEAK	11.537.977,59 €	- €	
LANDA-FINKAK	65.481,77 €	- €	
AZPIEGITURAK	535.586,75 €	374.305,92 €	
<b>ERRENTA - ESKUBIDEAK</b>	<b>182.106,67 €</b>	<b>- €</b>	
<b>BALORE HIGIKORRAK</b>	<b>703.060,22 €</b>	<b>- €</b>	
<b>IBILGAILUAK</b>	<b>117.724,19 €</b>	<b>59.190,89 €</b>	
<b>ALTZARIAK</b>	<b>1.223.711,42 €</b>	<b>764.710,56 €</b>	
<b>ONDASUN ETA ESKUBIDE BIHUR.</b>	<b>352.958,27 €</b>	<b>- €</b>	
<b>GUZTIRA</b>	<b>30.395.509,46 €</b>	<b>3.027.628,21 €</b>	
ERAIKINAK ERABIL LAGAPENEAN	279.482,72 €	- €	
	<b>30.674.992,18 €</b>	<b>3.027.628,21 €</b>	

**ONDASUNEN INBENTARIOA ETA ERREGISTROAREN ZERRENDA**  
**KIROLDEGIA 2002**

	<b>Erre.Histo.Kos</b>	<b>Erre.Meta.Amo.</b>	<b>Neto Kontablea</b>
<b>ONDASUN HIGIEZINAK</b>	1.320.511,50 €	820.770,86 €	499.740,64 €
<b>ALTZARIAK</b>	567.633,86 €	315.921,79 €	251.712,07 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.888.145,36 €</b>	<b>1.136.692,65 €</b>	<b>751.452,71 €</b>

**ONDASUNEN INBENTARIOA ETA ERREGISTROAREN ZERRENDA**

## MUSIKA ESKOLA 2002

	Erre.Histo.Kos	Erre.Meta.Amo.	Neto Kontablea	Erre.Histo.Kos
ALTZARIAK	96.229,98 €	50.042,38 €	46.187,60 €	96.229,9
				€
GUZTIRA	96.229,98 €	50.042,38 €	46.187,60 €	96.229,9
				€

## ONDASUNEN INBENTARIOA ETA ERREGISTROAREN ZERRENDA EUSKALTEGIA 2002

	Erre.Histo.Kos	Erre.Meta.Amo.	Neto Kontablea
ALTZARIAK	58.275,68 €	19.898,16 €	38.377,52 €
GUZTIRA	58.275,68 €	19.898,16 €	38.377,52 €

### 5- TAXIAK. 2003. urterako hiri-tarifak onartzea.

Jose Antonio Guirado (EAJ/PNV-EA) jaunak, hazienda-batzordearen proposamenaren berri eman du:

“GAIA.- Taxi-zerbitzua. Hiri-barneko tarifen onespena.

(AGITAX) Gipuzkoako Taxisten Elkarteak aurkeztutako 2.003. urterako tarifa-proposamena aurreko urtearekiko % 5eko igogerarekin ikusirik eta dokumentazioa aztertu ondoren, Hazienda-batzordeak ondorengo akordio PROPOSAMENA egiten dio Udalbatzari:

1.- 2002. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan izandako KPI aplikatuz, hau da % 3,9, zehazten diren 2.003. urterako hiri-barneko tarifen onespena:

	Abiasaria	Ibilitako kilometroko	Itxarote-ordua
Lanegunak egunez	2,49 €	0,78 €	14,94 €
Jaiak eta gauak	2,49 €	1,25 €	23,47 €

Lanegunetan egunez: Lanegunetan 07:00etatik 23:00etara.  
Gauetz eta jaietan: Lanegunetan 23:00etatik 07:00etara, igandeetan eta dagokien erkidegoko nahiz herriko legerian zehazten diren jaiegunetan.

2.- EAEko Prezioen Batzordeari akordio honen berri ematea berretsi eta argitara dezan.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da hazienda-batzordearen proposamena.

**6.- GKE.** Garatze bidean ari diren herriekiko lankidetzaprogramen finantzaketa-oinarriak.

Alkate jaunak, Ana Asla gizarte-ongizateko batzordeburuari hitza eman dio eta hark honela dio: “Azkeneko urteotan erabili ditugun irizpideak eta baldintzak mantentzen dira. Aipatu bakarrik, atzo Gasteizen Manuel Egiguren euskal kooperatzaile izendatu zutela. Joan den astean hemen egon zen eskerrak emateko, azkeneko urte hauetan berarekin lan egiten eta harremanetan gaudelako eta laguntza ematen diogulako.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute. Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu dira, garatze bidean ari diren herriekiko lankidetzaprogramen finantzaketa-oinarriak.

**7.- DIRULAGUNTZAK.** Garatze bidean ari diren herrietan lankidetzan arituko diren gazteentzat laguntzak emateko oinarriak.

Alkate jaunak, Ana Asla gizarte-ongizateko batzordeburuari hitza eman eta hark honela dio: “Gai honekin gauza berbera gertatzen zaigu. Azken urteotan erabilitako baldintzak mantentzen ditugu eta azkenean gazteen eskarietara moldatzen gara, adibidez iaz bi hilabeteko egonaldia lau hilabetera luzatzea eskatu ziguten eta onartu egin genuen.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute. Horren ondorioz, aho batez onartu dira, garatze bidean ari diren herrietan lankidetzan arituko diren gazteentzat laguntzak emateko oinarriak.

## **8.- ESKAERAK ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean, ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko gairik ezean, bilera arratsaldeko zortziak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.